

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

Bergarako udalak 2025. urterako enpresa edo ekin-tzaileentzako ezarri dituen dirulaguntza-programen deialdi irekia. BDNS (Identif.): 825156.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/825156>).

Alkateak 2025eko apirilaren 4an emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udalak 2025. urterako enpresa edo ekin-tzaileentzako ezarri dituen dirulaguntza-programen deialdi irekia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

Bergarako udalak 2025. urterako enpresa edo ekin-tzaileentzako ezarri dituen dirulaguntza-programen deialdi irekia.

ZIOEN AZALPENA

Bergarako Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027. Hainbat lerro estrategikoa jasotzen da Plan horretan, eta zortzigarrena da Sustapen Ekonomiko eta So-ziala izenekoa.

Lerro horretarako 1. eta 2. ekintzak honakoak dira:

- Enpresa berriek lokalen alokairu-gastuei aurre egiteko diru-laguntza (1. ekintza).
- Enpresei edota ekin-tzaileei laguntzeko dirulaguntza. Era-gin izeneko programa (2. ekintza).

Gauzak horrela, 2025eko urtealdirako onartutako udal au-rrekontuetan, diru-izendapenak ezarri ditu enpresa edota ekin-tzaileei laguntzeko. Halaber, honako bi dirulaguntza-lerro hauek prestatu ditu, puntu bakoitzean zehazten diren helburuak lor-tzeko:

- Enpresa berriek lokalen alokairu-gastuei aurre egiteko di-rulaguntza.

Dirulaguntza horrekin lortu nahi da, enpresa berriei jarduera abiarazten dutenean laguntza emateaz gain, herrian hutsik dau-den lokalen erabilera berreskuratzea eta, bereziki, Bergarako Hirigune Historikoan hutsik dauden lokalen erabilera.

Aldi berean, belaunaldien arteko erreleboan ere lagundu na-hi da, jarduerak martxan jarraitu dezaten; horrenbestez, eskual-datutako jardueretarako lokalen alokairuak ere diruz lagunduko dira.

- Azkenik, kanpotik etorri eta Bergaran kokatu diren enpresei ere laguntza eman nahi zaie.

- Enpresei edota ekin-tzaileei laguntzeko dirulaguntza. Era-gin izeneko programa.

Dirulaguntza horren helburua da herriko merkataritza- eta industria-eremuen funtzio ekonomikoa mantentzen eta areago-tzen laguntzea.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Convocatoria abierta de programas de subvención promovidos por el ayuntamiento de bergara para em-presas o personas emprendedoras en el año 2025. BDNS (Identif.): 825156.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvencio-nes, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convoca-toria/825156>).

Mediante decreto de Alcaldía de 4 de abril de 2025 se ha aprobado la convocatoria abierta de programas de subvención promovidos por el Ayuntamiento de Bergara para empresas o personas emprendedoras en el año 2025, por lo que se proce-de a su publicación:

Convocatoria abierta de programas de subvención promovidos por el ayuntamiento de bergara para em-presas o personas emprendedoras en el año 2025.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Pleno del Ayuntamiento de Bergara, en sesión celebrada el 27 de enero de 2025, aprobó el Plan Estratégico de Subven-ciones del Ayuntamiento de Bergara 2025-2027, en el que se recogen las diferentes líneas estratégicas, siendo la octava la denominada Fomento Económico y Social.

Las acciones 1 y 2 de esta línea son las siguientes:

- Subvención para afrontar los gastos de alquiler de locales de nuevas empresas (acción 1).
- Subvención para empresas o personas emprendedoras. Programa Eragin (acción 2).

Así pues, en los presupuestos municipales aprobados para el ejercicio anual 2025 se han establecido determinadas con-signaciones económicas para ayudar a empresas o personas emprendedoras. Asimismo, se han elaborado estas dos líneas de subvención, a fin de lograr los objetivos indicados en cada punto:

- Subvención para afrontar los gastos de alquiler de local de nuevas empresas.

Con esta subvención se pretende, además de ayudar a las nuevas empresas en el inicio de su actividad, recuperar tam-bién el uso de los locales del municipio que se encuentran va-cíos, especialmente en el Casco Histórico de Bergara.

Al mismo tiempo, se pretende apoyar el relevo intergenera-cional, dando continuidad a las actividades, subvencionando también los alquileres de locales de actividades traspasadas.

Finalmente, se quiere ayudar a empresas que, procedentes del exterior, se hayan establecido en Bergara.

- Subvención para empresas o personas emprendedoras. Programa denominado Eragin.

Constituye objeto de esta subvención contribuir al manteni-miento y reforzamiento de la función económica en las áreas mercantiles e industriales del municipio.

Gauzak horrela, dirulaguntza-deialdia arautuko duten oinarri hauek prestatu dira.

Oinarrien egitura honakoa da:

— Oinarri orokorrak.

Bi dirulaguntza-lerroetan izango dira aplikagarriak, ez bada oinarri espezifiko bakoitzean bestelakorik zehazten.

— Oinarri espezifikoak.

Dirulaguntza-lerro bakoitzari izango zaizkio aplikagarriak oinarri espezifikoak, eta dirulaguntza bakoitzaren berezitasunak zehazten dituzte; hala nola, dirulaguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Xedea.

Dirulaguntza hauen xedea da enpresei eta ekintzaileei jarraian zehazten diren dirulaguntzak ematea:

— Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntzak (Alokairu programa).

— Bergaran finkatuta dauden edo finkatu nahi duten enpresentzako dirulaguntzak (Eragin programa).

Dirulaguntza horiei hurrengo tituluko xedapen orokorretan jasotakoa aplikatuko zaie eta, hor zehaztuta ez dagoenean, dirulaguntza zehatza arautzen duten oinarri espezifikoetan jasotakoa. Kontraesanik balego, oinarri espezifikoetan jasotakoa lehenetsiko da.

I. TITULUA

ONARRI OROKORRAK

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

Dirulaguntza hauek emateko eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, bete egin beharko dira programa arautzen duten oinarriak eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezarzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie deialdi honen barruan Udalak onartutako laguntza- edo dirulaguntza-programa guztiei.

Oinarriotan (oinarri orokorretan edota espezifikoetan) xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua; Bergarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra; Bergarako Udalaren Udal Aurrekontuaren Araua; eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

3. artikulua. Onuradunak.

Arau espezifikoetan ez badago zehaztuta zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardute-eremua Bergaran daukaten enpresek, deialdiaren arabera, eta dirulaguntzak eskuratzeko 38/2003 Legean eta Bergarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, besteak beste, ordenantzaren 6. eta 8. artikulua.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean,

Así pues, se han elaborado las bases que regularán la convocatoria de las subvenciones.

Las bases se estructuran del siguiente modo:

— Bases generales.

Serán de aplicación en las dos líneas de subvención, siempre que no se establezca otra cosa en cada base específica.

— Bases específicas.

Son de aplicación a cada una de las líneas de subvención, estableciéndose las características específicas de cada subvención, como los criterios de adjudicación y distribución de la subvención, posibilidad de conceder anticipos, documentación a presentar, etc.

TÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1. Objeto.

El objeto de estas subvenciones consiste en la concesión de las ayudas económicas que se indican a continuación, destinadas a empresas y personas emprendedoras:

— Subvenciones para alquiler de local de nuevas empresas (programa Alokairu).

— Subvenciones a empresas ya establecidas o que pretendan establecerse en Bergara (programa Eragin).

A estas subvenciones les será de aplicación lo recogido en las disposiciones generales del siguiente título y, para cuanto no esté establecido en ellas, el contenido de las bases específicas reguladoras de cada subvención en concreto. En caso de contradicción, prevalecerá lo que establezcan las bases específicas.

TÍTULO I

BASES GENERALES

Artículo 2. Normativa aplicable.

La concesión de estas subvenciones y el establecimiento de la relación jurídica entre Ayuntamiento y beneficiarios/as quedarán sujetos al cumplimiento de las bases reguladoras del programa y del resto de normas vigentes en el momento de su concesión.

Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en las presentes bases generales serán de aplicación a todos los programas de ayudas o subvenciones aprobados por el Ayuntamiento dentro de la presente convocatoria.

En todo lo no previsto en las bases (generales o específicas), serán de aplicación: la Ley 38/2003, General de Subvenciones; el Real Decreto 887/2006; la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara; la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara; y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

Artículo 3. Personas o entidades beneficiarias.

En caso de que en las normas específicas no se establezca quién puede ser beneficiaria, podrán optar a la ayuda las empresas cuya sede y ámbito de actuación estén en Bergara, conforme a la convocatoria, y cumplan los requisitos establecidos para su obtención en la Ley 38/2003 y, entre otros, en los artículos 6 y 8 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara.

No serán beneficiarias de subvención alguna del Ayuntamiento de Bergara las personas físicas o jurídicas cuya/s actividad/es sea/n discriminatoria/s por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de

ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak ere:

a) Epai irmoz zigortuta daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauaren arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

4. artikulua. Eskabideak.

Aurkezten diren laguntza-eskabideak Udalak prestatutako eskabide-ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide-ereduak, orokorrak nahiz espezifikoak –dagozkion kasutan–, oinarri-arau hauetan datoz eranskin gisara, eta interesa duten guztiek eskuragarri izango dituzte, bai udal bulegoetan, bai Udalaren webgunean (www.bergara.eus). Eskatzailearen legezko ordezkariak aurreko paragrafoan aipatutako eskabide-eredua bete eta sinatu beharko du.

5. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua.

Eskaerak Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko dira, oinarri espezifiko bakoitzean zehaztutako epean.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Udalak horretarako prestatutako inprimakia erabilita egingo du eskaera eskatzaileak. Oinarri espezifikoetan zehazten da zein inprimakia erabili behar duen, eta horrekin batera beste zein dokumentu aurkeztu behar dituen.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizios sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu; eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu egin beharko ditu:

1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.

2) Aurkeztu eragin zuen prozeduraren izena. Diru-laguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, Udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administrazio eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez.

marzo). Tampoco aquellas personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

Tampoco podrán ser beneficiarias las personas físicas o jurídicas en quienes concorra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según la Ley 38/2003, Ley 15/2022, de 12 de julio, para la Igualdad de Trato y No Discriminación, la Norma Foral Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa o cualquier otra norma que resulte de aplicación.

b) Encontrarse en cualquier circunstancia en la que la legislación vigente impida a los poderes públicos la concesión de subvenciones.

Artículo 4. Solicitudes.

Las solicitudes de ayuda que se presenten se redactarán conforme al modelo de instancia elaborado por el Ayuntamiento. Los modelos de solicitud, tanto los generales como los específicos en su caso, figuran como anexo de las presentes bases, y estarán a disposición de todas las personas interesadas tanto en las dependencias municipales como en la página web municipal (www.bergara.eus). El modelo de instancia citado en el párrafo anterior deberá ser cumplimentado y firmado por el/la representante legal de la persona o entidad solicitante.

Artículo 5. Lugar de presentación de instancias.

Las instancias deberán presentarse en el Registro General Electrónico del Ayuntamiento, en el plazo establecido en cada base específica.

Artículo 6. Documentación a presentar.

La persona o entidad solicitante deberá formular su solicitud utilizando el impreso elaborado al efecto por el Ayuntamiento. En las bases específicas se indica el impreso que se ha de utilizar y los documentos que junto al mismo se han de presentar.

Al respecto se informa de que de conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que ya se encuentren en poder de la corporación, en cuyo caso podrán incorporarse de oficio siempre que la persona solicitante indique en su solicitud los siguientes extremos, que deberán ser verificados por el órgano encargado de la instrucción del procedimiento de concesión:

1) La fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

2) Designación del procedimiento que motivó la presentación. Cuando se trate de una convocatoria de subvenciones, se especificará el epígrafe y el año de su publicación.

Los datos y documentos en poder de la Administración perderán su vigencia bien por haber concluido el período para el que tenían validez o por haber transcurrido más de cinco años desde su aportación al procedimiento. En cualquier caso, el Ayuntamiento podrá requerir a la persona interesada para que lo aporte de nuevo cuando no quede suficientemente acreditado cualquier extremo necesario para resolver.

b) Que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. En este caso, el departamento competente en la materia del Ayuntamiento de Bergara podrá consultar o recabar directamente los datos y/o documentos que precise para acreditar el cumplimiento de los requisitos establecidos en estas bases, salvo que la persona interesada se opusiera a ello de forma motivada.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak daudenetan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

7. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, interesdunek 10 eguneko epea izango dute antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, dirulaguntza-eskaeran atzera egin duela ulertuko da Udalak emandako ebazpenaren bitartez eta, beste izapiderik gabe, eskaera artxibatu egingo da.

8. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura.

Laguntza-programaren arabera, dagokion departamentuak edo udal arloak izango du aurkeztutako eskabideak tramitatze-ko ardura; beraz, sail horien esku egongo da, haien eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzearen erantzukizuna. Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gai horretan eskumena duen batzordeak irizpena eman ondoren –hala badagokio–, onartzeko akordio-proposamena egingo dio organo eskudunari. Alkatea izango da laguntzak edo dirulaguntzak emateko organo eskuduna.

9. artikulua. Erabakia.

Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoiitu egin beharko da eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira xedea, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten, baita oinarri-arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo dirulaguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.

10. artikulua. Publizitatea.

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen den bezala.

11. artikulua. Onuradunen obligazioak.

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, honako hauek ere onuradunaren betebeharrak izango dira:

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.

En los supuestos en los que la persona interesada se oponga de forma motivada a la consulta de sus datos, debe aportar toda la documentación necesaria para su tramitación.

No obstante, en los supuestos de imposibilidad material de obtener el documento, se podrá requerir a la persona solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

La presentación de la solicitud implica la aceptación íntegra por parte de la persona o entidad solicitante de las condiciones establecidas en las presentes bases, así como en las bases específicas.

No se aceptará otro tipo de documentación.

Artículo 7. Corrección de errores.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento por parte del Ayuntamiento, a fin de que puedan subsanar los errores detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin haberse subsanado los errores, se le tendrá por desistido/a en su solicitud de subvención mediante resolución dictada al efecto, y dicha solicitud será archivada sin más trámite.

Artículo 8. Procedimiento para resolver.

La tramitación de las solicitudes presentadas corresponde, por razón del programa de ayudas que se trate, a los diferentes departamentos o áreas municipales, que serán los encargados del examen y evaluación de los proyectos, dentro del ámbito de sus competencias. Una vez emitido informe por los servicios técnicos, previo dictamen –en su caso– de la comisión competente por razón de la materia, se elevará la propuesta de resolución al órgano competente para su aprobación. El órgano competente para la concesión de ayudas y subvenciones será la Alcaldía.

Artículo 9. Resolución.

La resolución de concesión o denegación de la ayuda o subvención deberá ser motivada y, en todo caso, deberá quedar acreditado que la misma se ha adoptado en función de los criterios objetivos establecidos en las bases de la convocatoria.

En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, la relación de solicitantes a quienes se concede subvención, su cuantía, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas bases generales, en las bases específicas correspondientes o en la normativa vigente en el momento de su concesión. Asimismo, se indicará de manera expresa la relación de solicitudes que han sido desestimadas o rechazadas.

Artículo 10. Publicidad.

El Ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 11. Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

En caso de concesión de subvención, además de las obligaciones recogidas en sus bases específicas, constituirán obligaciones de las personas o entidades beneficiarias las siguientes:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta estatuko nahiz erkidegoko beste kontrol-organo eskudun batzuek egin ditzaketan finantza arloko egiaztatze- eta kontrol-jarduketak onartzea, eta jarduketa horietarako eskatutako informazioa ematea.

d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzeko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena egin beharko da horren berri izan eta berehala eta, edozein ere, funtsei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.

e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

f) Bergarako Udalarekin ez izatea inolako zorrik, eta egunean egotea betebeharrak fiskalekin eta zergen, tasen eta prezio publikoen ordainketan. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatutako duen pertsona edo entitate eskatzailea erakunde honekiko egunean dagoen.

g) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze- eta kontrol-jarduketak burutu daitezzen.

h) Jasotako funtsak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasoz dituen kasuetan.

i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezko baimen guztiak lortzea, eta baimen horien xedapenak betetzea.

j) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, Udalak jarraipena egin dezan edo harekin kolaboratu ahal izateko.

k) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gora-behera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.

l) Sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea Udalari dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko txostenetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

– Interesdunak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta ote dituen. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere beteta ote dituen.

Interesdunak, era arrazoituan, bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

12. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eskabideak baloratzeko, laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan (II. tituluaren dagokion kapituluaren) jasotako irizpideak aplikatuko dira.

13. artikulua. Diruz laguntzeko gastu-kontzeptuak.

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira, diruz lagundutako ekin-tzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak

c) Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero por parte del órgano concedente, así como por otros órganos de control competentes, tanto estatales como autonómicos, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de dichas actuaciones.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca el hecho y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.

e) Estar al corriente en sus obligaciones con Hacienda y la Seguridad Social.

f) No tener pendiente ningún tipo de deuda con el Ayuntamiento de Bergara y hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales y en el pago de impuestos, tasas y precios públicos. El Ayuntamiento de Bergara comprobará de oficio si la persona o entidad solicitante se encuentra al corriente con esta institución.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, por un mínimo de seis años, para posibilitar las actuaciones de comprobación y control.

h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en las presentes bases o en el resto de la legislación vigente.

i) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada, y cumplir sus determinaciones.

j) Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del Ayuntamiento.

k) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

l) Incluir sistemáticamente la variable de sexo en los informes a presentar al Ayuntamiento para la justificación de la subvención.

En aplicación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de la Disposición Adicional Octava de la Ley 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los derechos Digitales, y, en general, de la previsión contenida en el artículo 28 de la Ley 39/2015, no será preciso el consentimiento de la persona interesada para la gestión de estas subvenciones, y el Ayuntamiento podrá efectuar, en el ejercicio de sus competencias, las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos, y consultar y recabar documentos que se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra administración.

Para acreditar el cumplimiento de los requisitos u obligaciones, el Ayuntamiento de Bergara realizará ante otras administraciones las siguientes consultas:

– Si la persona interesada está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral. Asimismo, si se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones para con la Seguridad Social.

En los supuestos en los que la persona interesada se oponga de forma motivada a la consulta de sus datos, debe aportar toda la documentación necesaria para su tramitación.

Artículo 12. Criterios para la valoración de las solicitudes.

Para la valoración de las solicitudes, serán de aplicación los criterios recogidos en las bases específicas de cada programa de ayudas (en el capítulo correspondiente del título II).

Artículo 13. Conceptos de gasto subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que, además de responder a la naturaleza de la actividad o proyecto ob-

arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak, ez baldin baidute oinarri espezifikoek beste zeozer zehazten.

Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan azpikontratatzeko eskatutako betekizunei dagokienez xedatutakoa bete behar da, bai eta legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa ere.

14. artikulua. Gehienezko diru-izendapena.

Deialdi honen oinarri-arau espezifikoetan zehazten da zer diru-kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez ere.

Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoetan kontrarik xedatu ezean, aurrekontu-kopuru horrek muga-izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.

15. artikulua. Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera.

Oro har, eta laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrarik xedatu ezean, onartu egiten da udal dirulaguntza eta beste finantza-bide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantza-bide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik edo abarretik jasotako dirulaguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.

16. artikulua. Finantzaketa-mugak.

Dirulaguntza honetaz gainera beste finantza-bide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa-muga egindako gastuaren % 100a izango da; hau da, udalaren dirulaguntzarekin ezin izango da inondik ere gain-finantzaketarik egon, salbuespen honekin: Horri dagokionez, eta dirulaguntzak emateko udal akordioetan berariaz bestelako doitzeko edo erregularizazio sistemarik adierazten ez bada, Udalak, dirulaguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain-finantzaketarik gerta ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru-sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrearakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak, edo berari itzuli behar izatea, betiere lehen aipatutako salbuespeneko baldintzak ez baditu betetzen.

17. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua.

Dirulaguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du Udalak dirulaguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziazat. Dirulaguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide-ereduan hark emandako datuen arabera.

18. artikulua. Dirulaguntza gutxitzea.

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoek beste arauketarik xedatu ezean, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuarekiko.

19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa.

Dirulaguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua dirulaguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.

jeto de subvención, se realicen en el plazo establecido por las bases reguladoras de las subvenciones, siempre que las bases específicas no establezcan otra cosa.

Asimismo, para que un gasto sea considerado subvencionable deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, en relación con los requisitos exigibles para la subcontratación, así como a lo establecido en el artículo 31 del mismo texto legal.

Artículo 14. Consignación económica máxima.

En las bases específicas de la presente convocatoria se concreta la dotación económica destinada a cada programa, así como el carácter ampliable o no de la misma.

No obstante, con carácter general, y salvo que en las bases específicas se disponga lo contrario, dicha dotación tendrá carácter limitativo y no será susceptible de ampliación dentro del ejercicio.

Artículo 15. Posibilidad de concurrencia con otras ayudas.

Con carácter general, y salvo que las bases de cada programa de ayudas disponga lo contrario, se admite la posibilidad de concurrencia o compatibilidad de percepción de la subvención municipal con otras fuentes de financiación, bien sean ingresos por subvenciones procedentes de otras administraciones, de particulares, etc., o se trate de aportaciones o cuotas fijadas para la financiación del proyecto o actividad que pretende llevarse a cabo.

Artículo 16. Límites de financiación.

En caso de concurrencia de esta subvención con otras fuentes de financiación, y salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, el límite de financiación queda establecido en el 100 % del gasto producido, esto es, nunca podrá haber sobrefinanciación con ayuda económica del Ayuntamiento, exceptuando la siguiente salvedad: A este respecto, y salvo que en los acuerdos municipales de concesión de subvenciones no se indique expresamente otro sistema de ajuste o regularización, en el pago final o liquidación de la subvención a realizar por el Ayuntamiento a la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación del importe a abonar, al objeto de que dicha sobrefinanciación no tenga lugar, de modo que puede suceder que la beneficiaria esté obligada a devolver parte o la totalidad del anticipo recibido, o se le haya de efectuar un reintegro; siempre que no cumpla las condiciones de exención antes citadas.

Artículo 17. Forma de pago de la subvención.

El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió, tomando como referencia las cuantías y los porcentajes recogidos en el presupuesto y aprobados por los órganos competentes, y se librará a la entidad titular solicitante por la misma, de conformidad con los datos facilitados por ésta en el modelo de solicitud presentado.

Artículo 18. Minoración de la subvención.

En el supuesto de que la liquidación presentada fuera por importe inferior al presupuesto de gastos inicialmente presentado, y siempre que las bases específicas no dispongan otra regulación, la subvención se minorará mediante la aplicación de un coeficiente corrector, equivalente al porcentaje de la cuantía efectivamente utilizada respecto a la inicialmente solicitada y aprobada.

Artículo 19. Justificación de las subvenciones.

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar que los fondos percibidos se han destinado a la finalidad que determinó la concesión de la subvención.

Dirulaguntzaren justifikazioa egingo da oinarri espezifikoei buruzko arauak erabiliz eta moduan.

20. artikulua. Obligazioak ez betetzea. Itzulketa-kasuak.

1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoak gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

a. Jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.

b. Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuten baldintzak ezkatuz.

c. Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

d. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, dirulaguntza ematerakoan onartu ziren jardura edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jardura edo programatzat joko da.

e. Organo eskudunen kontrol-jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea.

f. Zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.

g. Finantzak egiaztatze eta kontrolatzeko jarduerari aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro- nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.

h. Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

i. Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoei buruzko xedatutako gainerako kasuetan.

2. Diru-itzulketak Udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

21. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko prozedura.

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko erabakia hartzeko.

2. Dirulaguntza itzularazteko jarraituko den prozedura izango da Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 65. eta hurrengo artikuluetan jasotzen dena.

3. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

22. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko modua.

1. Itzultzeko prozedura dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisikoek aurka zuzenduko da.

2. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

La justificación de la subvención se realizará en el plazo y forma establecidos en las bases específicas.

Artículo 20. Incumplimiento de obligaciones. Supuestos de reintegro.

1. Además de las previstas en el artículo 36 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, por razón de la nulidad o anulabilidad de la resolución de concesión, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento de la ayuda o subvención, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a. Incumplimiento de la obligación de justificación, o justificación insuficiente, del destino de los fondos percibidos, en la forma y plazos establecidos.

b. Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

c. Incumplimiento de las condiciones impuestas a las personas o entidades beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.

d. Incumplimiento, total o parcial, de la finalidad para la que fue concedida la subvención.

A este respecto, y salvo acuerdo municipal expreso en otro sentido, se considera incumplimiento un nivel de ejecución inferior al 50 % de actividades o programas aprobados inicialmente para la concesión de la subvención.

e. La negativa u obstrucción a las actuaciones de control por los órganos competentes.

f. Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión.

g. Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos recibidos o el cumplimiento del objetivo de la subvención.

h. Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las personas beneficiarias, así como los compromisos asumidos por éstas.

i. En los demás supuestos previstos en las bases específicas de cada ayuda o subvención.

2. Las cantidades a reintegrar podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos determinados por el Ayuntamiento.

Artículo 21. Procedimiento de exigencia de reintegro de la subvención.

1. La adopción de la resolución para exigir el reintegro –total o parcial– del importe percibido será competencia del mismo órgano que haya concedido la subvención.

2. El procedimiento a seguir para obligar al reintegro de la subvención será el establecido en los artículos 65 y siguientes de la Ordenanza General de Subvenciones.

3. Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente, para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.

Artículo 22. Forma de reintegro de la subvención.

1. El procedimiento de reintegro se dirigirá contra las personas físicas que figuren como solicitantes o beneficiarias de la subvención.

2. Para la determinación de la responsabilidad solidaria o subsidiaria de la obligación de reintegro de la subvención más los correspondientes intereses de demora, se estará a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

23. artikulua. Bermeak.

Oinarri-arau espezifikoei edo dirulaguntza emateko erabaki zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik Udalaren aldeko bermerik eskatzea.

24. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

25. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa.

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak alkateak ebatziko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, alde zuzenetik programaren arabera txostena egin eta gero.

26. artikulua. Oinarrien aurkako errekurtsoak.

Oinarri-arau hauek onartzeko erabakiaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik eta hilabeteko epean; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauen deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtso jarri ezingo denik.

II. TITULUA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Titulu honetan, dirulaguntzak emateko eskumena duten saillei dagozkien oinarri-arau espezifikok jasotzen dira, jarraian jasotzen den hurrenkerarekin:

1. kapitulua: Enpresa berriei lokala alokatzeko dirulaguntza (Alokairu programa).

2. kapitulua: Bergaran finkatuta dauden enpresentzako dirulaguntzak (Eragin programa).

1. KAPITULUA. ENPRESA BERRIEI LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

27. artikulua. Xedea.

Oinarri espezifikok hauen xedea da Bergarako Udalak enpresa berriei alokairua ordaintzeko emango dizkien dirulaguntzak arautzea, kontuan hartuta oinarri orokorrek diotena ere.

Dirulaguntza hauek Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluek aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduaren menpe daude (EBAO, L 352 zk., 2013/12/24koa). Dirulaguntza hauek «de minimis» dira; izan ere, pertsona juridiko edo fisiko bati emandako dirulaguntza osoak ez du gaindituko 200.000 euroko muga hiru zerga-ekitaldiren edozein alditan.

Artículo 23. Garantías.

Salvo que las bases específicas o los acuerdos concretos de concesión de subvención dispongan lo contrario, no se considerará necesaria la exigencia de garantías a favor del Ayuntamiento por razón de las ayudas otorgadas.

Artículo 24. Tratamiento de datos personales.

En aplicación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de la Disposición Adicional Octava de la Ley 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los derechos Digitales y, en general, de la previsión contenida en el artículo 28 de la Ley 39/2015, no será preciso el consentimiento de la persona interesada para la gestión de estas subvenciones, y el Ayuntamiento podrá efectuar, en el ejercicio de sus competencias, las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos, y consultar y recabar documentos que se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra administración.

Artículo 25. Interpretación de las bases.

Todas las cuestiones que pudieran surgir respecto de la interpretación de estas bases serán resueltas por Alcaldía, al ser el órgano competente para la aprobación de esta convocatoria, previo informe –en su caso– de la Comisión Informativa correspondiente por razón del programa.

Artículo 26. Recursos contra las bases.

Contra el acuerdo de aprobación de las presentes bases, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer con carácter potestativo Recurso de Reposición previo al Contencioso-Administrativo, en el plazo de un mes, o bien interponer directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, computándose ambos plazos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime procedente.

TÍTULO II

BASES ESPECÍFICAS

En el presente título se recogen las bases específicas correspondientes a las áreas competentes para la concesión de las subvenciones, en el orden que se indica a continuación:

Capítulo 1: Subvención para alquiler de local de nuevas empresas (programa Alokairu).

Capítulo 2: Subvenciones a empresas establecidas en Bergara (programa Eragin).

CAPÍTULO 1. BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA ALQUILER DE LOCAL DE NUEVAS EMPRESAS

Artículo 27. Objeto.

Constituye objeto de las presentes bases específicas la regulación de las subvenciones que concederá el Ayuntamiento de Bergara a nuevas empresas para el pago del alquiler, teniendo también en cuenta lo establecido por las bases generales.

Estas subvenciones estarán sujetas al Reglamento (CE) n.º 1407/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (DOUE, L n.º 352, de 24/12/2013). Estas ayudas son calificadas como «de minimis», puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinada superará los 200.000 euros, durante cualquier período de tres ejercicios fiscales.

28. artikulua. Diru-izendapena.

Dirulaguntza-deialdi honetarako 20.000 euro daude izendatuta 2025 - 3900.481.433.00.01 partidan.

29. artikulua. Departamentu arduraduna.

Garapen Sozio-ekonomiko eta Enpleguko Departamentua.

30. artikulua. Onuradunak.

30.1. Laguntza jaso ahal izango dute, Oinarri Orokorretako 3. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzeaz gain, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita 2025eko abenduaren 1era arte jarraian jasotako egoeretakoa batean dauden enpresek, baita Bergaran enpresa martxan jartzeko asmoa dutenek ere:

- Bergaran sortu eta Bergaran egoitza izanda, jardun-eremua gutxienez Bergaran daukaten enpresek.
- Kanpotik Bergarara etorritako enpresek.
- Bergaran eskualdatutako jardueren titular berriek.

Halaber, jaso ahal izango dute 2024ko urtarrilaren 1etik eta dirulaguntza hauen deialdia argitaratu arte aurreko pasartean jasotako egoera batean egon diren eta eskaera egiterako anean martxan jarraitzen duten enpresek.

30.2. Alokairu-laguntza hau eskuratu eta jaso ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Eskaera egiten den unean egoitza soziala Bergarako udalerrian izatea, eta Bergaran mantentzea gutxienez hurrengo bi urteetan.
- b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egotea Bergaran. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- c) Negozio-ekimenaren bideragarritasun-plan bat eginda izatea, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako Pertsonal Teknikoaren aldeko ebaluazioa jasotakoa.
- d) Hasierako plantilla hamar langile edo gutxiagokoa izatea.
- e) Udalari dirulaguntza eskatzean eta dirulaguntza jasotzen ari diren bitartean enpresa betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.
- f) Irudi korporatiboa gutxienez euskaraz izatea.
- g) Webgunea izanez gero, jasoko den dirulaguntzaren azken ordainketarako gutxienez elebitan izatea.
- h) Kanpora begira egingo den komunikazioa gutxienez euskaraz izatea.
- i) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Artículo 28. Consignación económica.

El importe consignado para la concesión de estas subvenciones es de 20.000 euros en la partida 2025 - 3900.481.433.00.01.

Artículo 29. Departamento responsable.

El Departamento de Desarrollo Socio-económico y Empleo.

Artículo 30. Personas o entidades beneficiarias.

30.1. Podrán optar a esta ayuda las empresas que, además de cumplir lo establecido en el artículo 3 de las Bases Generales de forma continuada desde la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 1 de diciembre de 2025, se encuentren en alguno de los siguientes supuestos, así como las empresas que pretendan implantarse en Bergara:

- Empresas creadas en Bergara y que tengan su sede y ámbito de actuación como mínimo en Bergara.
- Empresas implantadas en Bergara desde el exterior.
- Nuevos/as titulares de actividades en traspaso en Bergara.

Así mismo, podrán optar a la ayuda las empresas que desde el 1 de enero de 2024 hasta la publicación de la convocatoria de estas ayudas, se encontraran en alguno de los supuestos recogidos en el pasaje anterior y que en el momento de realizar la solicitud continúen en funcionamiento.

30.2. Para acceder y obtener la ayuda al alquiler, las empresas solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) En el momento de realizar la solicitud, tener la sede social de la empresa en el municipio de Bergara y mantenerla en el municipio en los siguientes dos años como mínimo.
- b) Estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en Bergara, extremo que será comprobado de oficio por el Ayuntamiento.
- c) Haber realizado un plan de viabilidad de la iniciativa de negocio que haya sido evaluado favorablemente por el personal técnico de la Agencia para el Desarrollo Económico de Debagoieta (Alto Deba).
- d) Contar con una plantilla inicial de, como máximo, diez personas.
- e) Desde el momento de la solicitud de ayuda al alquiler, y mientras siga percibiendo la subvención, la empresa deberá estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, así como con el Ayuntamiento de Bergara.
- f) Su imagen corporativa estará como mínimo en euskera.
- g) En caso de tener un sitio web, antes de recibir el último pago de la subvención la web estará como mínimo en las dos lenguas.
- h) La comunicación hacia el exterior se hará como mínimo en euskera.
- i) No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, de conformidad con lo establecido en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2008, de 17 de noviembre.

No serán beneficiarias de subvención alguna del Ayuntamiento de Bergara las personas físicas o jurídicas cuya/s actividad/es sea/n discriminatoria/s por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo). Tampoco aquellas personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

Ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren baten aurkitzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak ere:

a) Epai irmoz zigortuta daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauaren arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

Lokalek eta jarduerak, berriz, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Alokatzeko den lokalak eta han burutzen den jarduerak Bergarako Udalaren aurrean bere egoera erregularizatuta izatea gutxienez dirulaguntza jasotzen den bitartean. Udalak hori ofizioz egiaztatutako du.

b) Lokalean zerbitzu- edo industria-jarduera bat burutzea.

c) Bergarako udalerrian dagoen lokal pribatu bat alokairuan izatea.

d) Jarduera berria izatea, eta eskualdaketa (traspasoa) baten ondorioz edota, kanpotik etorruta, Bergaran kokatu den enpresa bat izatea.

Ulertuko da eskualdaketa (traspasoa) egon dela baldin eta ondoren jasotako kasuetariko bat gertatu bada:

1. Errentamendu-kontratuaren lagapena (zesioa) egin bada, 29/1994 Legearen 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz (29/1994 Legea, Hiri Errentamenduena).

2. Lokalaren jabeak lokalaren errentamenduarekin batera negozioaren eskualdaketa (traspasoa) egin badu. Negozioaren eskualdaketa egon dela ulertuko da baldin eta lehen ematen ziren zerbitzu guztiak edo batzuk ematen badira edo lehen saltzen ziren produktu guztiak edo batzuk saltzen badira, eta bi hilabete baino epe motzagoa pasatu bada.

3. Jardueraren titularra eta lokalaren errentaria izan dena hil edo jubilatu ondoren, jarduerarekin haren oinordekoek jarraitzen badute.

4. Jardueraren eta errentamenduaren titularra izan den sozietatea desegin ondoren, sozietate horren bazkide izandako batek (edo batzuek) jarduera berean jarraitzen badu(te).

e) Sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzailerak izan daitezkeen jarduerarik ez egitea.

31. artikulua. Laguntza-motak.

Ondoren ezartzen dira emango diren gehieneko dirulaguntzak, hileko (BEZ kanpo).

1. urtean: Alokairu-kostuaren % 33,33a eta gehienez 200 euro hileko.

2. urtean: Alokairu-kostuaren % 20a eta gehienez 120 euro hileko.

Lokala Bergarako Hirigune Historikoko ondoren zehazten diren kaleren batean kokatuta balego, ordea, lehenengo urtean dirulaguntza % 66,66koa izango da eta gehienez 400 eurokoa. Bigarren urtean, berriz, % 40koa eta gehienez 240 eurokoa.

Hirigune Historikoko kale horiek honakoak dira: Bidekurutzeta, San Martín plaza, Barrenkalea, San Pedro, Mizpildi, Komenio, Artekalera, Goenkalea, Masterreka, Zubieta eta Arruriaga.

BEZa ez da diruz lagunduko.

Tampoco podrán ser beneficiarias las personas físicas o jurídicas que se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

a) Haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según la Ley 38/2003, Ley 15/2022, de 12 de julio, para la Igualdad de Trato y No Discriminación, la Norma Foral Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa o cualquier otra norma que resulte de aplicación.

b) Encontrarse en cualquier circunstancia en la que la legislación vigente impida a los poderes públicos la concesión de subvenciones.

Por otro lado, los locales y actividades deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Tanto el local alquilado como la actividad que se desarrolle en él deberán tener regularizada su situación ante el Ayuntamiento de Bergara como mínimo durante todo el periodo en que sean subvencionados. Este extremo será verificado de oficio por el Ayuntamiento.

b) Desarrollar en el local una actividad industrial o de servicios.

c) Tener en alquiler un local privado ubicado en el municipio de Bergara.

d) Ser una actividad nueva, un traspaso o una empresa que se implante en Bergara procedente del exterior.

Se entenderá a estos efectos que hay traspaso cuando se dé alguno de los casos reseñados a continuación:

1. Cuando se produzca la cesión del contrato de arrendamiento previsto en el artículo 32 de la Ley 29/1994, de Arrendamientos Urbanos.

2. Cuando se produzca un traspaso de negocio junto con el arrendamiento del local por el propietario del local. Se entenderá que hay traspaso de negocio cuando se den todos o algunos de los mismos servicios o se vendan todos o algunos de los productos que se vendían con anterioridad y haya transcurrido un plazo inferior a dos meses.

3. Cuando, en caso de fallecimiento o jubilación del titular de la actividad y arrendatario del local, continúen con el ejercicio de la actividad sus herederos.

4. Cuando se disuelva la sociedad titular de la actividad y del arrendamiento, y continúen con el ejercicio de la misma actividad uno o varios socios.

e) No desarrollar actividades discriminatorias por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Hombres y Mujeres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo).

Artículo 31. Tipos de ayuda.

Se establecen a continuación las subvenciones máximas que se concederán al mes (sin IVA):

Primer año: El Ayuntamiento asumirá el 33,33 % del coste del alquiler, hasta un límite de 200 euros al mes.

Segundo año: El Ayuntamiento asumirá el 20 % del coste del alquiler, hasta un límite de 120 euros al mes.

En caso de que el local esté ubicado en una de las siguientes calles del Casco Histórico de Bergara, durante el primer año la subvención será de un 66,66 % mensual, hasta un límite de 400 euros, y durante el segundo año será de un 40 % hasta un límite de 240 euros.

Las citadas calles del Casco Histórico son: Bidekurutzeta, plaza de San Martín, Barrenkalea, San Pedro, Mizpildi, Komenio, Artekalera, Goenkalea, Masterreka, Zubieta y Arruriaga.

El IVA no será subvencionado.

32. artikulua. *Dirulaguntza gehienez jaso daitekeen epea.*

Udalak emango duen dirulaguntza, gehienez ere, alokairua 24 hilabetetan ordaintzeko izango da.

33. artikulua. *Eskabideak aurkezteko modua.*

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, Udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

34. artikulua. *Eskabideak aurkezteko epea.*

Dirulaguntza hau eskatzeko ez da egongo eperik; beraz, dirulaguntza hau edozein unetan eskatu ahal izango da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrekontua agortu arte edo 2025eko abenduaren 1era arte. Dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango da webgunean, dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

Laguntza hau ez da bateragarria Udalak 2024tik hona emandako helburu berdineko beste edozein dirulaguntzarekin. Bestalde, enpresak behin bakarrik eta bakarrik lokal baterako jaso ahal izango du dirulaguntza hau.

35. artikulua. *Aurkeztu beharreko agiriak.*

*** Enpresa eratu gabe balego:**

— Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntza-eskaera (F0170 inprimakia).

— Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia.

— Eskatzailearen NAN.

— Enpresa-ideiaren Bideragarritasun Plana, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako teknikarien aldeko ebaluazio-dokumentuarekin.

— Alokairu-kontratuaren zirriborroa.

— Jarduera martxan jartzeko egutegia.

*** Enpresa jadanik eratuta balego eta jarduera martxan:**

— Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntza-eskaera (F0170 inprimakia).

— Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia.

— Enpresa-ideiaren Bideragarritasun Plana, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako teknikarien aldeko ebaluazio-dokumentuarekin.

— Eskaera egiten duen pertsona fisikoaren NAN.

— Eskatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura (merkataritza-erregistroko idazpenaren arabera) eta identifikazio fiskaleko zenbakia (kopiak), eta enpresaren izenean eskaera egiten duen pertsona fisikoaren aldeko ahalorde notarialaren kopia.

— Autonomia bada, egindako inbertsioen justifikazioa.

— Alokairu-kontratua.

— Gizarte Segurantzaren enpresaren eta langileen altaren agiriak.

Edozein kasutan, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela. Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatze-ko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

— Foru Ogasunak: Zerga-betebeharrak egunean izatea.

Artículo 32. *Periodo máximo de percepción de subvención.*

La subvención que conceda el Ayuntamiento estará destinada al pago del alquiler durante un máximo de 24 meses.

Artículo 33. *Modo de presentación de solicitudes.*

La persona o entidad interesada deberá presentar la solicitud de ayuda en el Registro General Electrónico Municipal, utilizando para ello el/los impreso/s elaborado/s al efecto por el Ayuntamiento. No se aceptará otro tipo de documento.

Artículo 34. *Plazo de presentación de solicitudes.*

No habrá plazo determinado para solicitar esta subvención, pudiendo hacerlo en cualquier momento a partir de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta agotarse el presupuesto o hasta el 1 de diciembre de 2025. En caso de agotarse la subvención, se informará de ello mediante la publicación de un anuncio en la página web, en el apartado de subvenciones.

Esta ayuda no es compatible con cualquier otra subvención que desde el año 2024 hasta el momento haya sido concedida por el Ayuntamiento para este mismo fin. Por otro lado, las empresas únicamente podrán percibir esta subvención en una sola ocasión y para un único local.

Artículo 35. *Documentación que se ha de presentar.*

*** Empresas no constituidas:**

— Solicitud de subvención de alquiler de local de nuevas empresas (impreso F0070).

— Si la solicitud se realiza en representación de otra persona, impreso F0136.

— DNI de la persona solicitante.

— Plan de Viabilidad de la idea empresarial, junto con documento de evaluación favorable del personal técnico de la Agencia de Desarrollo Económico de Debagoiena (Alto Deba).

— Borrador del contrato de alquiler.

— Calendario para la implantación de la actividad.

*** Empresas constituidas y en funcionamiento:**

— Solicitud de subvención de alquiler de local de nuevas empresas (impreso F0070).

— Si la solicitud se realiza en representación de otra persona, impreso F0136.

— Plan de Viabilidad de la idea empresarial, junto con documento de evaluación favorable del personal técnico de la Agencia de Desarrollo Económico de Debagoiena (Alto Deba).

— DNI de la persona física solicitante.

— Si la solicitante es persona jurídica: Escritura de constitución o modificación (conforme a la inscripción del Registro Mercantil) y número de identificación fiscal (copias), y copia del poder notarial a favor de la persona física que realiza la solicitud en representación de la empresa.

— En caso de ser autónomo/a, justificación de la inversión realizada.

— Contrato de alquiler.

— Documentos de alta de la empresa y del personal trabajador en la Seguridad Social.

En todo caso, el Ayuntamiento comprobará de oficio si se encuentra al corriente en sus pagos con el Ayuntamiento de Bergara y si cumple con todas sus obligaciones para el ejercicio de la actividad respecto al Ayuntamiento de Bergara. Para acreditar el cumplimiento de los requisitos u obligaciones, el Ayuntamiento de Bergara realizará ante otras administraciones las siguientes consultas:

— Haciendas forales: Si está al corriente en sus obligaciones tributarias.

— Gizarte Segurantzaz: Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

— Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

36. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura.

Jadanik jarduera martxan baldin badago, Udalak egiaztatuko du lokalak eta jarduerak benetan egoera erregularizatuta dutela eta eskatzaileak jarduera garatzeko baldintzak betetzen dituela, eta txosten teknikoa egin ondoren, dagokion Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio alkateari edo hark eskumena eskuordetu dion organoari, erabakia har dezan.

Jarduera martxan ez balego, Udalak begiratu du martxan jarri nahi den jarduera burutu daitekeen azaldutako lokalean eta, posible balitz, eta txosten teknikoa egin ondoren, Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio alkateari edo hark eskumena eskuordetu dion organoari, erabakia har dezan. Erabakian zehaztuko da lokalak eta jarduerak benetan egoera erregularizatuta dutela egiaztatzeko epea; epe hori 6 hilabetekoa izango da gehienez, justifikatutako arrazoren bat ez balego. Dirulaguntza ez da ordainduko lokalaren eta jardueraren egoera erregularizatu eta enpresa bat martxan jartzeko garatu beharreko beste tramite guztiak egin direla frogatu, jarduera martxan jarri eta martxan jarri denetik 6 hila-bete pasa arte.

Jarduera ezin izango balitz garatu ekintzaileak aurreikusitako lokalean hirigintzako baldintzak betetzen ez dituelako, dirulaguntza eskaera ez da onartuko.

Erabakia hartzeko hiru hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkeztu denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berriazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, dagokion departamentuko arduradunak egindako errekomenduen bitartez.

37. artikulua. Erabakiaren edukia.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi behar du laguntza ukatzen edo ematen zaion; eta ematen bazaio, zenbateko dirulaguntza ematen zaion, nola ordainduko zaion eta nola justifikatu behar dituen oinarri hauek eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak.

Dirulaguntza onartutzat joko da, emandako dirulaguntzaren jakinarazpena jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epean dirulaguntzari uko egiteko idatzirik aurkeztu ez badu.

38. artikulua. Onuradunen obligazioak.

Honako hauek dira onuradunen betebeharrak, oinarri orokortako 13. artikuluan jasotakoez gain:

— Seguridade Social: Si está al corriente en sus obligaciones con la Seguridade Social.

En los supuestos en los que la persona interesada se oponga de forma motivada a la consulta de sus datos, debe aportar toda la documentación necesaria para su tramitación. Los documentos a presentar en su caso serán los siguientes:

— Certificado de la Hacienda Foral que corresponda, donde se acredite que se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales.

— Certificados de la Seguridade Social, donde se acredite que se encuentra al corriente en sus obligaciones con la Seguridade Social.

Artículo 36. Procedimiento para resolver.

En el supuesto de que la actividad esté ya en funcionamiento, el Ayuntamiento comprobará si efectivamente el local y la actividad tienen regularizada su situación y si la solicitante cumple las condiciones para desarrollar la actividad y, a continuación, una vez elaborado el informe técnico, la Comisión Informativa Municipal correspondiente efectuará una propuesta de concesión de subvención, que elevará a Alcaldía, u órgano en quien delegue, para su resolución.

En el supuesto de que la actividad no esté aún en funcionamiento, el Ayuntamiento comprobará si la actividad que se pretende establecer puede desarrollarse en el local expuesto y, si ello fuera posible, una vez elaborado el informe técnico, la Comisión Informativa Municipal correspondiente efectuará una propuesta de concesión de subvención, que elevará a Alcaldía, u órgano en quien delegue, para su resolución. En dicha resolución deberá establecerse el plazo en el que se habrá de acreditar que la situación del local y de la actividad se encuentra efectivamente regularizada; dicho plazo no podrá exceder de seis (6) meses, salvo motivo justificado. La subvención no se abonará hasta que, una vez acreditado que la situación del local y de la actividad está regularizada, y tras cursar todos los demás trámites precisos para poner en funcionamiento una empresa, hayan transcurrido seis meses desde su puesta en funcionamiento.

En caso de que la actividad no pudiera desarrollarse en el local previsto por la persona o entidad emprendedora por no cumplir éste con los requisitos urbanísticos, la solicitud de subvención no será admitida.

El plazo máximo para adoptar la resolución será de tres meses, a partir de la presentación de la solicitud con toda la documentación.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido desestimada.

El Ayuntamiento, antes de formular la propuesta de resolución, podrá requerir cuanta información complementaria considere precisa mediante requerimiento de la persona responsable del departamento correspondiente.

Artículo 37. Contenido de la resolución.

En la resolución de concesión de subvención que será notificada a la solicitante, deberá establecerse como mínimo la concesión o denegación de la subvención y, en caso de concesión, su cuantía, la forma de pago, el modo en que se han de justificar el resto de condiciones y obligaciones exigidas en las presentes bases.

Se entenderá la subvención aceptada, si en el plazo máximo de 15 días, a contar desde el siguiente al recibo de la notificación de la resolución de otorgamiento de la subvención, no presenta escrito de renuncia.

Artículo 38. Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

Además de las obligaciones recogidas en el artículo 13 de las bases generales, las personas o entidades beneficiarias estarán obligadas a:

— Diruz lagunduko den jarduera garatzeko beharrezko baimenak eskuratzea, eta baimen horien xedapenak betetzea.

— Lokalaren jabeari egindako ordainketen agiriak sei hiletik behin aurkeztea. Agiriak aurkeztu ondoren, Udalak dirulaguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

39. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak.

Ordainketak egingo dira erabakia hartu ondoren eta jarduera martxan jarri denetik gutxienez 6 hilabeteko epea pasa ondoren. Hortik aurrerakoak ere 6 hilabetetik behin egingo dira.

Ordainketak egiteko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

— Alokairuaren aurreko 6 hilabeteetako erreziboak eta ordainketa-agiriak.

— Helburu berarekin jasotako beste dirulaguntzen agiriak, jaso badira; eta horrelakorik jaso ez balitz, zinpeko aitortpena.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

— Foru Ogasunak: Zerga-betebeharrak egunean izatea.

— Gizarte Segurantzak: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearan aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

— Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

2. KAPITULUA. BERGARAN FINKATUTA DAUDEN EDO FINKATU NAHI DIREN ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK (ERAGIN PROGRAMA) ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

40. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea da, Eragin programaren barruan, 50 langile edo hortik behera dituzten Bergarako enpresentzako dirulaguntzak arautzea, herriko merkataritza- eta industria-eremuetako funtzio ekonomikoa mantentzen eta areagotzen laguntzeko helburuz.

Dirulaguntza-programa horren barruan, hiru laguntza-mota hauek emango dira:

Ekintzailea: Enpresa berria sortzean egindako inbertsioei aurre egiten laguntzeko. Enpresa berritatzat joko da 2024ko urtarilaren 1etik aurrera eratu dena.

Azterlana: Azterlan teknologikoak egiten laguntzeko.

Erreleboa: Enpresen (pertsona fisiko zein juridikoen) enpresa-ondorengotza/erreleboa egiten laguntzeko.

— Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionable, y cumplir sus determinaciones.

— Presentar semestralmente los documentos del pago realizado a la propiedad del local. Una vez presentados los documentos, el Ayuntamiento procederá al pago de la subvención en la cuenta corriente que haya indicado la empresa.

Artículo 39. Forma y plazos de abono de la subvención.

